


GAITASUNAK EUSKAL CURRÍCULUMEAN



Ikaslearen gida 5. moduluko diziplinarteko lanerako

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA. 3. maila

2021-2022 ikasturtea

AURKIBIDEA

1. TESTUINGURUA.....	2
2. MODULUKO IRAKASLE TALDEA	2
3. EZAUGARRI OROKORRAK	3
4. AGERTOKIA.....	4
5. GALDERA ERAGILEAK.....	7
6. EGIN BEHARREKO LANAREN DESKRIPZIOA	7
7. IKASKUNTZA HELBURUAK	9
8. MODULUAREN BEREZKO GAITASUNAK	9
9. MODULUKO IRAKASGAIEN GAI ZERRENDA.....	9
10. ENTREGATZEKO LANEN KRONOGRAMA	12
11. IRAKASLEEK ETA IKASLEEK GARATU BEHARREKO JARDUERAK	13
12. MODULUKO LANAREN EBALUAZIOA.....	14
12.1. Ebaluazioa bertaratzen diren ikasleentzat.....	14
12.2. Ebaluazioa bertaratzen ez diren ikasleentzat	14
12.3. Moduluko lanaren kalifikazioa	14
12.4. Ebaluazio-errubrikak	15
13. OHIKO GALDERAK.....	18
14. LANAREN ALDERDI FORMALAK	18
15. AMAIERAKO LANAREN EGITURA.....	19
16. MODULUAREN AMAIERAKO LANA EMATEA	20
17. MODULURAKO BIBLIOGRAFIA PROPOSAMENA.....	20

1. TESTUINGURUA

Ikastetxea: Hezkuntza eta Kirol Fakultatea	
Moduluaren izena: Gaitasunak Euskal Curriculumean	
Maila: 3. maila	Lauhilekoa: Urte osokoa

Gida honetan, Vitoria-Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultatean irakasten den Haur Hezkuntzako graduko bosgarren moduluari, *Gaitasunak Euskal Curriculumean* izenekoari, dagokion diziplinarteko lana aurkezten da. Modulu hori Haur Hezkuntzako graduaren hirugarren maila osoan irakasten da.

Gaitasunak Euskal Curriculumean izeneko modulua 8 irakasgaik osatzen dute: Arte Plastikoak eta Ikusizko Kultura Haur Hezkuntzan II, Garapen Psikomotorra II, Musika Adierazpenaren Garapena II, Zientzia Esperimentalak Haur Hezkuntzako Ikasgelan, Pentsamendu Matematikoa eta bere Didaktika, Hizkuntzaren didaktika eta Atzerriko hizkuntza, Hizkuntzaren eta Literaturaren didaktika eta Practicum II.

2. MODULUKO IRAKASLE TALDEA

KOORDINAZIOA: Iraitz Lizarra Gómez (iraitz.lizarraga@ehu.eus)

Arte Plastikoak eta Ikusizko Kultura Haur Hezkuntzan II	Arrate González Sáez Amaia Urzain Martínez	945 01 4171	arrate.gonzalez@ehu.eus amaia.urzain@ehu.eus
Garapen Psikomotorra II	Iraitz Lizarraga Gómez	945 013415	iraitz.lizarraga@ehu.eus
Musika Adierazpenaren Garapena II	Txomin García de la Torre Rey Nerea Barrena de la Rúa	945 014175 945 013442	domingo.garciadelatorre@ehu.eus nerea.barrena@ehu.eus
Zientzia Esperimentalak Haur Hezkuntzako Ikasgelan	Daniel Zuazagoitia Rey-Baltar	945 014195	daniel.zuazagoitia@ehu.eus
Pentsamendu Matematikoa eta bere Didaktika	Javier Gasco Txabarri	945 014211	javier.gasco@ehu.eus
Hizkuntzaren Didaktika eta Atzerriko Hizkuntza	Eider Sainz de la Maza Urtzi Reguero Ugarte	945 014210 945 014200	vider.sainzdelamaza@ehu.eus urtzi.reguero@ehu.eus
Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika	Txabi Arnal Gil Alexander Gurrutxaga	945 014193 945 013617	javierignacio.arnal@ehu.es alexander.gurrutxaga@ehu.eus

3. EZAUGARRI OROKORRAK

Gaitasunak Euskal Curriculumean Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Graduetako 5. modulua da. Hirugarren mailan irakasten da, ikasturte osoa hartzen du eta beheko grafikoan agertzen diren zortzi irakasgaiak barruan hartzen ditu.

Konpetentzien lanketa eskolan		3 HH
Arte Plastikoak eta Ikuste Kultura haur Hezkuntzan II	5 kr	6 kr
Garapen Psikomotorra II	5 kr	6 kr
Musika Adierazpenaren Garapena II	5 kr	6 kr
Zientzia Esperimentalak Haur Hezkuntzako Ikasgelan	5 kr	6 kr
Pentsamendu Matematikoa eta bere Didaktika	5 kr	6 kr
Hizkuntzaren Didaktika eta Atzerriko Hizkuntza	7,5 kr	9 kr
Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika	7,5 kr	9 kr
Practicum II	2 kr	12 kr

8 kr
8 kr

PRACTICUM-EKO EGONALDIA
MODULOKO DISZIPLINARTEKO LANA

3.1. Edukien deskripzio laburra

Moduluko diziplinarteko jardueran (MDJ) lan proiektu bat egingo da, Haur Hezkuntzako 2. zikloko ikasleekin lan egitera bideratuta, zehatz esanda, 5 urteko ikasgelan. Horretarako, irakasgai bakoitzean landutako edukiak mobilizatu eta horien arteko loturak ezarri beharko dira.

3.2. Proiektuari eskainitako dedikazioa

Aurreko grafikoan ikus daitekeenez, *Gaitasunak Euskal Curriculumean* izeneko 5. moduluan, Practicum II irakasgaiaz gain, 6 ECTS kredituko bost irakasgai eta 9 ECTS kredituko bi irakasgai daude. Moduluko lanak irakasgai bakoitzerako ECTS kreditu 1eko balioa izango du modulu bakoitzean parte hartzen duten 6 kredituko 5 irakasgaietan, eta 1,5 ECTS kredituko balioa 9 kredituko bi irakasgaietan. Hau da, moduluko lanak 8 ECTS kredituko balio osoa izango du, eta ikasturte osoan landuko da, 12. orriko kronograman azaltzen den moduan.

Ikasleentzako lan karga 10 ordu bertaratzeko eta 15 ordu ez bertaratzeko izango dira 6 kredituko irakasgai bakoitzean, eta 15 ordu bertaratzeko eta 22,5 ez bertaratzeko moduluko 9 kredituko irakasgai bakoitzean. Horrek esan nahi du taldeko pertsona bakoitzak laneko 80 ordu bertaratzeko eta 120 ordu ez bertaratzeko izango dituela. Practicum irakasgaia grafikoan sartu

dugu moduluan garatu beharreko proiektua Practicum II irakasgaiarekin lotu behar dugula / lotu dezakegula gogorarazteko. Baina horrek nahitaez ez du horrela izan behar, antolaketa-faktoreen eta proposamen horrek ikastetxeetan duen harreraren arabera izango da.

Kredituei dagokienez eskainitako dedikazioaren laburpena ondoko taulan ikus daiteke:

	Bertaratzeko orduak	Ez bertaratzeko orduak	GUZTIRA
5 Irakasgai 6 ECTS	5x10 = 50 ordu	5x15 = 75 ordu	125 ordu
2 Irakasgai 9 ECTS	2x15 = 30 ordu	2x22,5 = 45 ordu	75 ordu
Orduak GUZTIRA	80 ordu bertaratzekoak	120 ordu ez bertaratzekoak	200 ordu

4. AGERTOKIA: K5 MODULUKO LANERAKO TESTUINGURUA

XXX ikastetxea YYY auzoan dago, Vitoria-Gasteizen ekialdean. Auzo berria da eta parke handi bat du hurbil, urmael batekin. Auzoaren iparraldean, ekialdean eta hegoaldean saihasbideak daude.

4.1. Ikastetxearen ezaugarriak

Ikastetxeak, hasieratik, B eta D ereduak eskaini zituen, baina azken urteetan, ikastetxera jatorri askotariko ikasleak hurbiltzen direnez, murgiltze-programa berria aplikatzen ari dira, ikasgela heterogeneoen errealitateari erantzuteko. Ikastetxeak titulartasun publikoa du eta Haur Hezkuntza (2-6) eta Lehen Hezkuntza (6-12) etapak eskaintzen ditu. 20 ikasgela ditu (2 talde kurtsu bakoitzeko).

Bi patio ditu: bata barrukoa eta bestea kanpukoa, jolasen eta harritzoen guneekin, komunak, liburutegia, laborategia, gimnasioa, informatika ikasgela, hizkuntz laguntzarako ikasgela, psikomotrizitate ikasgela, ekitaldien aretoa eta jangela.

Eskolak Eskolako Agenda 21 programan parte hartzen du.

4.2. Metodologia

Ikastetxearen hezkuntza ereduak oinarri duen ikaskuntza ereduaren arabera, aurretik dakigunaren eta ikasgelan planteatzen diren ideia eta esperientzia berrien arteko elkarrizketatik eraikitzen da ezagutza. Ikasleek planteatutako interesak edo egoera istilutsuak hartzen dira oinarri edo, batzuetan, irakasleak egoera batzuk eragiten ditu eta ikasleek

erantzuna eman behar dute. Aurrekoarekin bat etorritik, ikastetxeko irakasleek Proiektuen metodologia hautatu dute.

Metodologia horren bidez, ikasleak hurbileko arazoetan sakontzea, inplikatzeko, motibatzea eta ikaskuntza-prozesua haiek arautzea lortu nahi da.

4.3. Irakasleen eginkizuna

Irakasleek ikasleek ikaskuntza gidatu, orientatu behar dute. Irakaslea hurbileko pertsona izan behar da, eta ikasleek artean konfiantza giroa sortzeko gai izan behar du. Era berean, ikasleek jakingura piztu behar du, eta ikasteko gogoia sortu behar die, askotariko teknikak erabiliz eta bitarteko berritzaileak gehituz. Eta, nola ez, edozein motatako eginkizunak modu esanguratsuan planteatu behar ditu.

Horrez gain, ikastetxeak dituen hezkuntza printzipioak errespetatu behar ditu: baterako hezkuntza, inklusibitatea, jasangarritasuna, etnia, hezkuntza eta kultura aniztasunaren balorazio positiboa, eta hizkuntza tratamendua murgiltze bidez.

4.4. Ikasleek eginkizuna

Ikasleak aktiboak eta positiboak izan behar du. Horretarako, ikasgelan aurkezten zaizkion atazak konpondu behar ditu, horien xedea bilatuz beti eta egiten duenari esangura emanaz, eta egiten duenarekin gozatuz.

4.5. Familiaren eginkizuna

Ikastetxea eraiki zenetik, irakasleek oso argi izan dute familiak ikastetxeko eta ikasgelako jardueretan duten garrantzia. Beraz, modu antolatua eta programatua, familiak esku hartzen dute eta irakasleei laguntzen diete ahal duten guztian: irteerak, lekukotzak ikasgelan, interesa seme-alaben ebaluazio jarraituan, eta bitartekoak emanaz.

4.6. Natura ingurua

Eskolatik hurbil dagoen parkea oso handia da. Parke hori Vitoria-Gasteizko Eratzun Berdea osatzen duten parkeetako bat da. Inguru heze bat du, zenbait urmaelek osatuta, zenbait larre eta harizti txiki bat. Euskal Autonomia Erkidegoko hezegune kontinentalik baliotsuenetakoa da. Parkearen erdian Naturaren Interpretazio Ikastetxe bat eta hegaztien bi behatoki daude, leku horren natura aberastasuna ezagutzeko eta horretaz gozatzeko.

Natura inguru horretan, nola ez, ibilgailuen joan-etorritako bi noranzko dituzten errepideak, etxebizitzak eta lonjak daude.

Auzoko zerbitzuak eskolatik hurbil daude: anbulatorioa, auzo etxea, kiroldegia eta ludoteka. Horrez gain, eskolatik hurbil hiriko Arte Museoa dago.

4.7. Natura, gizarte eta kultura inguruaren garrantzia ikaskuntza prozesuetan

Ingurua ezagutzera oso faktore garrantzitsua da neska-mutilen garapen eta ikaskuntza prozesuan. Inguru horrekin etengabe harremanetan egon behar dute. Zentzumenen bidez, inguruarekin elkarreragin eta esperimendatuko dute.

Ikaskuntza prozesuak indartu eta horiei esangura emateko, ikastetxean irteerak antolatzen dira natura, gizarte eta kultura ingurua ezagutzeko. Irteera horietan, natura gustuko izatea eta naturaz gozatzea sustatzeaz gain, hurrengo hauek ere sustatzen dira: arauak errespetatzea, natura errespetatzea, erantzukizunak banatzea, autonomia, etab.

4.8. Ikasgela

Zure ikasgela, moduluko lana garatzeko erabiliko duzuna, 5-6 urteko ikasgela da, eta aniztasun handia du maila soziokulturalari, hizkuntzei eta ikaskuntza erritmoei dagokienez. 23 ikasle daude: 10 neska eta 13 mutil. Ikasgela txokoetan banatuta dago, eta banaketa hori irakaskuntza/ikasuntza antolatzeko oinarrizko ardatzetako bat da. "Batzarteko" deitzen den espazioan ikasleek hitz egin eta entzun egiten dute, hau da, sentimenduak, ideiak, gurariak... adierazten dituzte, gatazkak konpontzen dituzte eta urteko aldi desberdinetan landu beharreko proiektuen gaiak erabakitzen dira. Horrez gain, txoko bakoitza behar den moduan antolatuta dago askotariko gaitasunak garatzeko. Hori dela eta, materialak eta erreferenteak xede horretarako hautatzen dira. Banakako zein lankidetzako idatzizko lanerako mahai taldekatuen espazioak daude.

Zuk, zikloko gainerako irakasleekin batera, ikasgelan lan egiteko proiektuen arabarako metodologia erabiltzen duzu, eta une honetan bat amaitu berri duzu, planetei buruzkoa. Modu horretan, orain proiektu berria zure ikasleekin erabaki behar duzu.

4.9. Lan honen helburua

Diseinatu zure ikasgelako ikasleek garatuko duten proiektu berria, modu globalizatuan, esperientzia esparru guztietako gaitasunak, edukiak, jarduerak, materialak eta ebaluazioa barruan hartuta.

5. GALDERA ERAGILEAK

Proiektua egiterakoan, gutxienez galdera hauek planteatu beharko dituzu lanaren ardatz moduan:

1. "Proiektu bat egiterakoan, zein ekintza, elkarreragin eta bitarteko erabiliko genituzke egoera edo arazo bat ebazteko?"
2. Zer pauso emango zenituzke planifikaziorako eta geroko ebaluaziorako?"

6. EGIN BEHARREKO LANAREN DESKRIPTZIOA

Moduluko lana 4 ikaslez osatutako lantaldetan burutuko da. Hiru fasetan garatuko da, horien edukiak hiru momentu desberdinetan aztertuko direlarik. Ondoko tauletan fase bakoitzean egin beharreko jardueren laburpena aurkezten da.

1. FASEA: SARRERA ATAZEN BIDEZKO IRAKASKUNTZA-IKASKUNTZARA. IKASGELAKO PROIEKTUAK.
Haur Hezkuntzako irakasle-ikasketak egiten ari direnei bideratutako jarduerak, proiektua egin aurretik.
1.1. Ideiak hautematea. Zer dakigu proiektuen araberako irakaskuntza-ikaskuntzari buruz.
1.1.1. Moduluko tutoreak: aurreko moduluen berrikuspena K5ekin lotutako zer eduki landu diren ikusteko.
1.1.2. Moduluko ikasleek: aurreko ikasturteetan K5ekin lotuta landutako ezagutzak berrikusi eta "aktibatzea".
1.2. Zer jakin behar dugu? Proiektuen araberako irakaskuntza-ikaskuntzari buruzko informazioa osatzea.
1.3. Proiektuaren esparrua
1.3.1. Testuingurua: ikasleen ingurunea "Kontzeptuen esparrua K5 moduluko lanerako" dokumentua oinarri hartuta, atal hauek garatzea: A) Ikastetxea: mota, ingurua, Hezkuntza Gaitasun Orokorrak, Hizkuntza Proiektua... B) Ikasgela: espazioaren, denboraren, taldekatzeen, baliabideen... antolaketa. C) Ikasleak: adina, ikasgelako taldearen osaera, ezaugarriak (aurretiazko ezagutzak, gaiarekiko jarrerak, interesak...), aniztasunaren trataera, ohiturak, errutinak...
1.3.2. Oinarritze zientifiko eta metodologikoa A) Ikasturteko eta zikloko programazioak: <ul style="list-style-type: none">• Lotura lege-esparruaren dokumentuekin• Zikloko programazioa: gaitasunak, edukiak, jarduerak, ebaluazio-irizpideak. B) Proiektuen araberako metodologia: Oinarri dituen irakaskuntza-ikaskuntza printzipioen azalpen laburra.
1.3.3. Gaia hautatzea eta justifikatzea <ul style="list-style-type: none">• Ondoko bi gaien artean, bat hautatzea: BASOA edo ITSASOA.• Lan talde bakoitzak proiektua ikasgelako zein egoeratik sortu den deskribatzea eta proiektua izendatzea. Justifikazioa (bibliografia bilatu) <ul style="list-style-type: none">• Zergatik hautatzen dugu gai hori? Zergatik iruditzen zaigu interesgarria eta motibatzailea? Nola lotzen da neska-mutilen bizitzarekin, sentimenduekin, beharrian afektibo, fisiko eta komunikatiboekin?

<p>1.3.4. Dokumentu honen 15. puntuaren aurkezten den eskeman oinarrituta, PROIEKTUAREN ESPARRUA erredaktatu eta tutoreari entregatzea .</p> <p>1.3.5. Entregatu den lan zatiari buruzko feedbacka (tutoreak taldeari emango dio) jasotzea eta, horren arabera, atal hori zuzentzea.</p>

<p>2. FASEA: PROIEKTU BAT EGITEA HAUR HEZKUNTZAKO IKASGELARAKO</p>
<p>Haur Hezkuntzako irakasle-ikasketak egiten ari direnek egin beharreko jarduerak 1.3.1. puntuaren deskribatutako Haur Hezkuntzako ikasgelarako proiektu baten garapena simulatuz.</p>
<p>2.1. Zer dakigu?</p> <p>Jorratuko den gaiari buruzko ikuskerak elkarbanatzeko unea da. Hasierako lanketa horretan ikaskuntza beharizanek agerian geratu eta ikasi nahi dugun horretan zehaztuko dira. Ikasgelako neska-mutileen aurretiazko ideiak esplizitu egiteko fasea da.</p>
<p>2.2. Zer jakin nahi dugu?</p> <p>Aurretiazko ideiak esplizitu egin ondoren, irakasleak modu jakin batean interpretatu eta antolatu behar ditu; izan ere, neska-mutilek eraiki behar dituzten ideiak irakasleak soilik ezagutzen ditu. Beraz, atal honetan honako hauek hartuko ditugu kontuan:</p> <ul style="list-style-type: none">• Proiektuaren bidez garatu behar diren oinarritzko gaitasunak.• Bete beharreko edukiak.
<p>2.3. Nola jakin dezakegu?</p> <p>Fase honetan, irakaskuntza-ikaskuntzarako jarduera gehienak planifikatzen dira. Beraz:</p> <p>A) Jarduerak: proposatutako gaitasunak garatzen laguntzen duten jarduerak pentsatu-sortu-hautatu behar dira, gairako eta ikasleen adinerako egokiak direnak:</p> <ul style="list-style-type: none">• Informazioa bilatzea: iturriei buruzko adostasuna lortu, nola antolatu, informazioa bilatzeko teknikak (elkarrizketak, bisitak, kontsultak helduei, entziklopediak, Internet ...).• Informazioa erabiltzea: baloratu, alderatu, konparatu, eskemetan jaso ...• Behatzea eta zuzenean esperimintatzea.• Irudikatzea (komunikazioa). <p>B) Jardueren garapenaren deskripzioa: jarduera horien garapenaren deskripzioa egin behar da, erabilitako prozedura metodologikoak/esku hartzeko moduak barne hartuta.</p>
<p>2.4. Zer ikasi dugu?</p> <p>A) Ikasitakoa erregistratu</p> <p>Hasieraren eta helmugaren arteko kontrastea esan nahi du. Fase honetan, prozesu osoan zehar banaka zein modu kolektiboan ikasitakoaren komunikazioa sustatzen duten jarduerak dira nagusi. Era berean, neska-mutilek egindako ekarpenak nola jaso eta antolatu erabaki behar dugu.</p> <p>B) Ikasitakoa baloratzea</p> <p>Emaitzen analisia eta prozesu osoaren ebaluazioa biltzen ditu: gaitasunak, edukiak, jarduerak, ikasleen produktuak, prozesu osoaren koherentzia... Egindako ikaskuntza (zer ikasi dugun) baloratu eta hobekuntza proposamenak egin behar dira, beste proiektu batzuk egiteko.</p>
<p>2.5. Dokumentu honen 15. puntuaren aurkezten den eskeman oinarrituta, SARRERA, PROIEKTUAREN FASEAK, PROIEKTUAREN LABURPEN TAULAK ETA ONDORIOAK erredaktatu eta tutoreari entregatzea.</p> <p>2.6. Entregatu den lan zatiari buruzko feedbacka (tutoreak taldeari emango dio) jasotzea eta, horren arabera, atal hori zuzentzea.</p>

<p>3. FASEA: PROIEKTU IDATZIA TUTOREARI ENTREGATZEA ETA PROIEKTUAREN AHOZKO AURKEZPENA</p>

7. IKASKUNTZA HELBURUAK

Modulu honetan, gaitasunen araberako curriculumaren planteamendua, garapena eta ebaluazioa eta planteamendu horrek eragiten dituen aldaketa metodologikoak jorratuko dira. Sei hilekoa amaitzean, ikasleak hainbat esperientzia esparrutan Haur Hezkuntzako ikasleei bideratutako gaitasunen araberako ikaskuntza proposamenak kudeatu, diseinatu, arautu eta ebaluatzeko gai izango dira. Horrez gain, irakaskuntza-ikaskuntzaren ikuspegi orokor eta diziplinartekoa lortuko dute, etapa honetan oinarriko gaitasunak garatzeko bide bakar moduan.

8. MODULUAREN BEREZKO GAITASUNAK

- C2.- Irakaskuntzara bideratutako baliabide eta estrategia didaktikoak banaka eta taldean aztertu eta konparatzea, eta aldi berean komunikazioaren eta informazioaren teknologiak erabiltzea.
- C3.- Etapa honetako esperientzia eremuetarako proposamen didaktikoak diseinatu, ezarri eta ebaluatzea, praktikaren arazoei eta erronkei buruz gogoeta eginez, ikasleen hezkuntza beharrianak, genero-berdintasuna, kultura-aniztasuna eta giza eskubideak artatzea xede izanda.
- C4.- Komunikazioaren eta adierazpenaren trebetasunak hobeto menderatzea.

9. MODULUKO LANEAN INPLIKATUTAKO IRAKASGAIEEN GAI ZERRENDA

ARTE PLASTIKOAK ETA IKUSIZKO KULTURA HAUR HEZKUNTZAN II
IRAKASGAIKO GAITASUNAK
A) Haur Hezkuntzako curriculumaz aztertzea
B) Arte hezkuntzari eta ikusizko kulturari buruzko gaur egungo ikerketak ezagutu eta haurtzaroko arte ikaskuntzari buruzko teoriak modu kritikoan aztertzea
C) Arte hezkuntzan estrategia sortzaileak erabiltzen dituzten praktikak identifikatzea
D) Haur Hezkuntzara egokitutako jarduera proiektuak diseinatzea curriculum ikerketa gaurkotua oinarri hartuta

- 1. GAIA.- Arloko curriculum erreferentziak. Orientazio didaktikoak.
- 2. GAIA.- Ikusizko Kultura haurren esparruan.
- 3. GAIA.- Baliabide kontzeptual, tekniko, metodologiko eta sortzaileak haurren mailara egokituta
- 4. GAIA.- Estrategia sortzaileak
- 5. GAIA.- Haurren mailara egokitutako jarduera-proiektuak diseinatzea curriculum ikerketa gaurkotutik.

GARAPEN PSIKOMOTORRA II

IRAKASGAIKO GAITASUNAK

A) Jolasa garapen psikomotorraren baliabide didaktiko moduan erabiltzen jakitea eta jolas printzipioetan oinarritutako ikaskuntza ariketak diseinatzea
--

1. GAIA.- Hurbilketa teorikoa esku-hartze eredura.
2. GAIA.- Orientazio didaktikoak garapen psikomotorrari buruz.
3. GAIA.- Hezitzailearen jarreraren sistema.
4. GAIA.- Hezkuntza ekintzaren ebaluazioa eta analisia.
5. GAIA.- Garapen psikomotorraren behaketa.

MUSIKA ADIERAZPENAREN GARAPENA II
--

IRAKASGAIKO GAITASUNAK

A) Jolasa musika adierazpenaren baliabide didaktiko moduan erabiltzen jakitea eta jolas printzipioetan oinarritutako ikaskuntza ariketak diseinatzea
--

B) Musika hautematea eta adierazpena, trebetasun motorrak eta sormena sustatzen dituzten proposamen didaktikoak egitea
--

1. GAIA.- Abestia eta haurren errepertorioa
2. GAIA.- Musika eta jolasa
3. GAIA.- Musika asmakuntza
4. GAIA.- Baliabide didaktiko-musikalak haurren etapan
5. GAIA.- Musika Haur Hezkuntzako curriculumean.

ZIENTZIA ESPERIMENTALAK HAUR HEZKUNTZAKO IKASGELAN

IRAKASGAIKO GAITASUNAK

C) Proposamen didaktikoak egitea Haur Hezkuntzan pentsamendu zientifikoa garatzeko estrategia didaktiko desberdinak aztertuz eta baloratuz
--

D) Inguru natural, sozial eta kulturalaren aldeko interesa eta errespetua sustatzea Zientzia Esperimentalei lotutako proiektuak eta proposamen didaktikoak eginda.
--

4. GAIA.- Estrategiak eta baliabide didaktikoak inguru fisiko eta naturalaren irakaskuntza/ikaskuntzarako.
5. GAIA.- Sekuentzia didaktikoak diseinatzea.

PENTSAMENDU MATEMATIKOA ETA BERE DIDAKTIKA

IRAKASGAIKO GAITASUNAK

B) Zenbakizko adierazpenak eta adigai espazialak, geometrikoak eta garapen logikokoak garatzeko estrategiak eta baliabide didaktikoak ezagutzea.
--

C) Matematika ezagutza soziokultural moduan ulertzea.

D) Inguru natural, sozial eta kulturalaren aldeko interesa eta errespetua sustatzea proiektu didaktiko egokien bidez.

1. GAIA.- Matematikaren Didaktikako alderdi orokorrak.
2. GAIA.- Pentsamendu logiko erlazionala eraikitzea.
3. GAIA.- Zenbakizko pentsamendua eraikitzea.
4. GAIA.- Pentsamendu espaziala eraikitzea.
5. GAIA.- Magnitudea eta neurria.

HIZKUNTZAREN DIDAKTIKA ETA ATZERRIKO HIZKUNTZA
IRAKASGAIKO GAITASUNAK
A) Etapa honetako komunikazio trebetasunei buruzko eskolako curriculumaren atalak ezagutzea, baita trebetasunak eskuratzeari eta garatzeari buruzko teoriak ere.
C) Atzerriko hizkuntza batera lehen hurbilketa sustatzeko gai izatea

HIZKUNTZAREN DIDAKTIKA

1. GAIA.- Hizkuntzak Haur Hezkuntzako curriculumean.
2. GAIA.- Komunikazioaren garapena lehen urteetan familia eta eskola inguruan.
3. GAIA.- Ahozkoaren ezaugarriak. Ulermena eta ahozko adierazpena H1 eta H2n.
4. GAIA.- Ahozko diskurtso generoak Haur Hezkuntzan.
5. GAIA.- Irakaskuntza estrategiak ahozko hizkuntza eskuratu eta garatzeko H1 eta H2n.
Hezkuntza egoerak eta ariketak.

ATZERRIKO HIZKUNTZAREN DIDAKTIKA

1. Atzerriko hizkuntza Haur Hezkuntzan:
 - 1.1. Egitura alderdiak:
 - Atzerriko hizkuntzak EAEko hezkuntza sisteman.
 - Atzerriko hizkuntzen irakasleak.
 - Atzerriko hizkuntzen ikasleak Haur Hezkuntzan.
 - 1.2. Alderdi metodologikoak:
 - Ikuspegi metodologikoak atzerriko hizkuntza irakasteko Haur Hezkuntzan. Edukien eta hizkuntzaren ikaskuntza integratua (CLIL).
 - Baliabide didaktiko batzuen erabilera: ipuinak, abestiak, errimak, jolasak. IKT.

HIZKUNTZAREN DIDAKTIKA ETA LITERATURA
IRAKASGAIKO GAITASUNAK
B) Irakurketaren eta idazketaren eta horien irakaskuntzaren ikaskuntza prozesuak ezagutzea eta sekuentzia didaktikoak diseinatzea ahozko eta idatzizko hizkuntza garatzeko Haur Hezkuntzako ikasleen artean
C) Ahozko hizkuntzaren eta ahozkoa ez den hizkuntzaren erabilera egokia aitortu eta baloratzea eta hizkuntzen eta horien irakaskuntzaren aldeko jarrera positiboak garatzea

2. GAIA- Idatzizko hizkuntza Haur Hezkuntzako geletan
11. GAIA- Idatzizko eta ahozko haur literatura gelan

10. MODULU LANAREN KRONOGRAMA

ESKOLA ASTEAK	MODULUKO DATA KOMUNAK
1. Astea 2020-IX-13tik 17ra	Zuzendaritzaren eta moduluaren aurkezpenak: irailak 13
2. Astea 2020-IX-20tik 24ra	TALDEAK EGITEA
3. Astea 2020-IX-27etik X-1era	
4. Astea 2020-X-4tik 8ra	GIDA IRAKURTZEA ETA TUTOREAREKIN HARREMANETAN JARTZEA
5. Astea 2020-X-11tik 15era (X-11 eta 12a ez lektiboak)	
6. Astea 2020-X-18tik 22ra	TUTOREAREKIN BILTZEA ETA LANAREN 1. FASEAREKIN HASTEA
7. Astea 2020-X-25etik 29ra	
PRACTICUM II formazio-saioa azaroaren 2an; egonaldia (7 aste), azaroaren 3tik abenduaren 23ra	
NEGUKO OPORRAK: abenduaren 24tik urtarrilaren 6ra	
16. Astea 2021-I-24tik 28ra	
17. Astea 2021-I-31tik II-4ra	1. FASEKO DOKUMENTUA TUTOREARI ENTREGATZEA
18. Astea 2021-II-7tik 11ra	1. FASEKO DOKUMENTUARI BURUZKO FEEDBACK LANAREN 2. FASEAREKIN HASTEA
19. Astea 2021-II-14tik 18ra	
20. Astea 2021-II-21etik 25era	
21. Astea 2021-II-28tik III-4ra	
22. Astea 2021-III-7tik 11ra	
23. Astea 2021-III-14tik 18ra	2. FASEKO DOKUMENTUA TUTOREARI ENTREGATZEA
24. Astea 2021-III-21etik 25era	
25. Astea 2021-III-28tik IV-1era	2. FASEKO DOKUMENTUARI BURUZKO FEEDBACK EMATEA
26. Astea 2021-IV-4tik 8ra	
UDABERRIKO OPORRAK: apirilaren 14etik 24ra (biak barne)	
28. Astea 2021-IV-25etik 27ra (IV-28 eta 29a ez lektiboak)	
29. Astea 2021-V-2tik 6ra	MODULU LANA IDATZIZ ENTREGATZEA: maiatzaren 6an
30. Astea 2021-V-9tik 13ra	MODULU LANAREN AHOZKO AURKEZPENAK: maiatzaren 10ean

11. IRAKASLEEK ETA IKASLEEK GARATU BEHARREKO JARDUERAK

Moduluan parte hartzen duten irakasle guztiek ataza hauek egin behar dituzte:

1. Moduluko lana diseinatu, ezarri eta ebaluatzea.
2. Ikasleei moduluko lanaren diseinua azaltzea.
3. Gaia hautatzean eta baliabide didaktikoak bilatzen orientatzea.
4. Kasuan kasuko atazak egite aldera informazioa bilatzeko erremintak ematea, arlo bakoitzeko ezagutzak eskuratzerara eta gaitasunak garatzerara orientatuta.
5. Moduluko lan prozesua gainbegiratzea, gutxienez lantalde bakoitzarekin egindako hiru tutoretza saiotan (hasieran, erdian eta lana amaitzean). Lantalde bakoitzak moduluko irakasle bat izango du tutore.
6. Moduluko lanak egiteko prozesua koordinatzea.
7. Moduluko lanaren idatzizko txostena ebaluatzea, errubrikan ezarritako eta ikasleei emandako irizpideen arabera.

Diziplinarteko lana bertaratzen diren ikasleentzat planteatzen da, gutxieneko asistentzia eta eskatutako inplikazioa betetzen dituztenentzat. Hala ere, ikasle guztiek diziplinarteko lanari buruzko ezagutzak erakusteko gaitasuna lortu behar dute; beraz, gogoan izan behar dugu bertaratzen ez diren ikasleek diziplinarteko lanari buruzko galderei azterketan erantzun beharko dietela. Jarraian, bertaratzen diren eta bertaratzen ez diren ikasleentzat esanguratsuak izan daitezkeen atazak aipatuko ditugu:

- Harrera ekitaldian parte hartzea; modu horretan, moduluaren aurkezpena, irakasleen taldea eta moduluko lanaren planteamendua ezagutuko dituzte.
- Moduluko gida kontsultatzea.
- Lehen astean irakasgai bakoitzeko irakasleari ikaslearen fitxa ematea.
- Bertaratzen ez den ikaslea izanez gero, Gomendioen gutunean jasotako oharrei jarraituz, lehen hilabetean irakasgai bakoitzeko irakaslearen bulegora joatea.
- Tutoretzetan parte hartzea.

12. MODULU LANAREN EBALUAZIOA

Ebaluaziorako bi modalitate egongo dira, bata bertaratzen diren ikasleentzat eta bestea bertaratzen ez diren ikasleentzat.

12.1. Etengabeko ebaluazioa egiten duten ikasleentzat

- Kronograma xehatua izango dute, diziplina bakoitzeko irakaskuntza gidan eta moduluko gidan zehaztua.
- Moduluko lana egitean, Haur Hezkuntzako ikasgela baterako lan proiektua eman beharko da; proiektu hori 4 ikasleko taldeetan egingo da.
- Lanean moduluko diziplinaren bat agertuko ez balitz, ezinezkoa izango litzateke lana gainditzea.
- Moduluko lanaren kalifikazioa berdina izango da taldeko ikasle guztientzat.
- Moduluko lanaren kalifikazioa irakasgaiko kalifikazioaren 1/5 (2 puntu) izango da. Kalifikazio hori moduluko irakasleek adostuko dute eta diziplina bakoitzeko ebaluazioarekin batuko da.

Balizko egoerak 2. deialditik aurrera

- *Moduluko lana suspendituta eta irakasgaia gaindituta*: irakasgai bakoitzeko irakasleek erabakitzen dute moduluko lana irakasgaia gainditzeko giltzarria den ala ez.
- *Moduluko lana gaindituta eta irakasgaia suspendituta*: moduluko lanaren emaitza gordeko da ikasgaia gainditu arte.
- *Moduluko lana eta irakasgaia suspendituta*: 2. deialdiko azterketan, irakasgaiko azterketaz gain, moduluko lanean hobetu daitezkeen alderdiak edo edukiak berriz egingo dira.

12.2. Azken ebaluazioaren sistema egiten duten ikasleentzat

- Moduluari buruzko proba zehatzen bidez ebaluatuko dira.
- Moduluko lanari buruzko probek ere gehienez 2 puntu lortuko dituzte (irakasgaiko emaitzaren 1/5).

12.3. Moduluko lanaren kalifikazioa

- Txosten idatziak notaren %75 balioko du.
- Ahozko aurkezpenak notaren %25 balioko du.
- Bi frogak –ahozko aurkezpena eta txosten idatzia- aprobatzea ezinbestekoa izango da modulua gainditu ahal izateko.

12.4. Ebaluazio errubrikak

TXOSTEN IDATZIAREN ERRUBRIKAREN PONDERAZIOA. NOTAREN %75				
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	Hobetu behar (0-4.99)	Onargarria (5-6.99)	Lan ona (7-8.99)	Lan bikaina (9-10)
1. JUSTIFIKAZIOA: Proiektuaren eta HHko OCD-aren zein ikasgaien estandarren arteko lotura. Gaiaren lotura haurren bizimodu, interes, zaletasun eta ikasteko irrikarekin, baita behar kognitibo, afektuzko, fisiko eta komunikaziozkoekin.	Apenas erlazionatzen da Haur Hezkuntzako curriculumarekin. Ez dira kontuan izan etapako iraka-ikaskuntza printzipio oinarritzkoak. Ez dira loturak ezartzen inplikaturako ikasgaien artean. Gaia ez da egokitzen haurren interes, ezaugarri eta beharretara.	Haur Hezkuntzako curriculumari buruzko aipamen batzuk egin dira. Kontuan izan dira etapako iraka-ikaskuntza printzipio gehienak baina nahasmenduren bat dago erabiltzean. Diziplinarteko lotura batzuk ezarri dira inplikaturako ikasgaien artean. Gaiak azaletik errespetatzen ditu haurren interes, ezaugarri eta beharrak.	Haur Hezkuntzako curriculumari buruzko aipamen ugari egin dira. Kontuan izan dira etapako iraka-ikaskuntza printzipio gehienak eta zuzen erabili dira. Diziplinarteko lotura nabarmenak ezarri dira inplikaturako ikasgaien artean. Gaiak egoki errespetatzen ditu haurren interes, ezaugarri eta beharrak.	Proiektua erabat erlazionatzen da Haur Hezkuntzako curriculumarekin. Kontuan izan dira etapako iraka-ikaskuntza printzipio guztiak, zuzen erabili dira eta haien arteko loturak ezarri dira. Sakondu da inplikaturako ikasgaien arteko loturen deskribapenean. Gaia sakonki argudiatu da eta haurren interes, ezaugarri eta beharrak errespetatzen ditu.
2. Proposatu diren gaitasunak, edukiak, metodologia eta ebaluazioa HHko etapari egokitzen zaizkio.	Proposatu diren gaitasunak, edukiak, metodologia eta ebaluazio-jarraibideak ez dira egokiak eta apenas erlazionatzen dira etapako curriculumarekin.	Proposatu diren gaitasunak, edukiak, metodologia eta ebaluazio-jarraibideak etapako curriculumarekin lotzeko saiakera egin da, baina nahasmendu txikiren bat dago loturak identifikatzean.	Proposatu diren gaitasunak, edukiak, metodologia eta ebaluazio-jarraibideak egokiak dira, oro har, eta zuzen identifikatu dira etapako curriculumarekin dituzten erlazio nabarmenenak.	Proposatu diren gaitasunak, edukiak, metodologia eta ebaluazio-jarraibideak oso egokiak dira, eta zuzen identifikatu dira etapako curriculumarekin dituzten erlazio guztiak.
3. Proposatu diren jardueren egokitzapena, tipologia eta aberastasuna.	Proposatu diren jarduerak desordenatuak aurkeztu dira, sekuentzia didaktiko baten logikari jarraitu gabe. Etengabe errepikatu da jardueren tipologia bera. Proposatu diren jardueretan ez da kontuan izan gertuko garapen eremua, oso zailak edo oso errazak dira. Proposatu diren jardueretan ezin dira arlo guztietako gaitasunak garatu.	Proposatu diren jarduerak nolabaiteko sekuentzia baten arabera antolatu dira, baina batetik besterako saltoak ematen dira. Sekuentzia osoan zehar bizpahiru jarduera mota desberdin erabili dira, besterik ez. Proposatu diren jarduerak batzuetan kontuan izan da gertuko garapen eremua, baina gehienak oso zailak edo oso errazak dira. Proposatu diren jardueretan ia arlo guztietako gaitasunak gara daitezke.	Proposatu diren jarduerak sekuentzia jakin baten arabera antolatu dira, baina batzuetan, batetik besterako saltoak ematen dira. Sekuentzia osoan zehar ia jarduera mota guztiak erabili dira. Proposatu diren jarduerak gehienetan kontuan izan da gertuko garapen eremua, baina batzuk oso zailak edo oso errazak dira. Proposatu diren jardueretan arlo guztietako gaitasunak gara daitezke, baina nolabaiteko desoreka dago haien artean.	Proposatu diren jarduerak sekuentzia logiko baten arabera antolatu dira, batetik besterako lotura ematen da. Sekuentzia osoan zehar jarduera mota guztiak erabili dira. Proposatu diren jarduerak guztietan kontuan izan da gertuko garapen eremua, gaitasun moduko erroka dira haurrentzat. Proposatu diren jardueretan arlo guztietako gaitasunak gara daitezke, eta garrantzia orekatu da haien artean.

TXOSTEN IDATZIAREN ERRUBRIKAREN PONDERAZIOA. NOTAREN %75

EBALUAZIO IRIZPIDEAK	Hobetu behar (0-4.99)	Onargarria (5-6.99)	Lan ona (7-8.99)	Lan bikaina (9-10)
4. Proiektuaren barne-koherentzia: justifikazio, gaitasun, eduki, metodologia eta ebaluazioaren artean.	<p>Koherentziarik ez dago justifikazio, gaitasun, eduki, metodologia eta ebaluazioaren artean.</p> <p>Ez dago egokitzapenik proiektuaren atal desberdinen artean, jarduera batetik besterako iragaiteak ez du zentzu handirik.</p>	<p>Gutxieneko koherentzia dago justifikazio, gaitasun, eduki, metodologia eta ebaluazioaren artean.</p> <p>Badago nolabaiteko egokitzapena proiektuaren atal batzuen artean eta zaila da jarduera batetik besterako iragaitea.</p>	<p>Barne-koherentzia nabarmena dago justifikazio, gaitasun, eduki, metodologia eta ebaluazioaren artean, baina hutsuneak daude txostenaren atalen artean.</p> <p>Badago egokitzapena proiektuaren atalen artean baina, batzuetan, zaila da jarduera batetik besterako iragaitea.</p>	<p>Barne-koherentzia handia dago justifikazio, gaitasun, eduki, metodologia eta ebaluazioaren artean.</p> <p>Erabateko egokitzapena dago proiektuaren atal desberdinen artean. Jarduera batetik besterako iragaitea naturala da oso.</p>
5. Sormena proiektuaren diseinuan.	<p>Originaltasuna: jarduera guztiak estereotipatuak dira eta kopiatzeko ariketak bultzatzen dituzte.</p> <p>Elaborazioa: proiektuak ez du inongo eraldaketarik, kontsultatutako iturrietan oinarrituz elaboratuta.</p>	<p>Originaltasuna: jarduera batzuek harridura eragiten dute eta emaitzen aniztasuna bultzatzen dute.</p> <p>Elaborazioa: proiektuak eraldaketaren bat ba dauka, kontsultatutako iturrietan oinarrituz elaboratuta.</p>	<p>Originaltasuna: jarduera askok harridura eragiten dute eta emaitzen aniztasuna bultzatzen dute.</p> <p>Elaborazioa: proiektuak eraldaketa ugari ditu, kontsultatutako iturrietan oinarrituz elaboratuta.</p>	<p>Originaltasuna: jarduera guztiak harridura eragiten dute eta emaitzen aniztasuna bultzatzen dute.</p> <p>Elaborazioa: proiektuak erabateko eraldaketa du, kontsultatutako iturrietan oinarrituz elaboratuta.</p>
6. Idatzizko hizkuntzaren erabilpen egokia: gaitasun linguistikoa, diskurtsiboa eta soziolinguistikoa.	<p>Erabili den terminologia ez da egokia. Ortografia-akats larriak eta ohizkoak. Idazkera nahasia, sintaxi traketsa.</p> <p>Errore larriak eta sistematikoak testua antolatzean. Haien arteko erlaziorik gabe adierazitako ideiak eta esaldiak. Egokia ez den informazioa hautatu da. Errore larriak edo kohesio-mekanismoak aplikatu gabe.</p> <p>Erregistroa ez zaio egokitzen komunikazio-egoerari (errore larriak).</p>	<p>Erabili den terminologia batzuetan ez da zuzena, eta gramatika- edo ortografia-akatsen bat badago. Sintaxia eta idazkera batzuetan ez dira zuzenak.</p> <p>Antolaketa-errore arinak, testuaren garapena eta ulergarritasuna oztopatzen ez dutenak. Ideiak eta esaldiak ondo lotuak, arazoren bat baina, ez dio diskurtsuaren ulergarritasunari eragiten. Informazio egokia hautatu da, garrantzirik gabeko gabeziaren bat.</p> <p>Erregistroa gehienetan egokitzen zaio komunikazio-egoerari.</p>	<p>Erabili den terminologia gehienetan zuzena da, eta ortografia- eta gramatika-akats gutxi batzuk egon arren (5 baino gutxiago), ez dira larriak. Txostenaren sintaxia, oro har, zuzena da.</p> <p>Diskurtsua ondo antolatu da, badago arazo zehatzen bat. Ideiak eta esaldiak ondo lotuak, garrantzirik gabeko arazoren bat. Egokia da hautatu den informazio gehiena eta abstrakzio-maila ona dago ideien kontzeptuak azaltzean.</p> <p>Erregistroa ondo egokitzen zaio komunikazio-egoerari.</p>	<p>Erabili den terminologia zehatza eta zuzena da, ortografia eta sintaxia akatsik gabekoak dira.</p> <p>Enuntziatuak bikain eraiki dira. Ideiak eta esaldiak oso ondo lotuak, arazorik gabe. Beti hautatu da informazio egokiena eta abstrakzio-maila altua dago ideien kontzeptuak azaltzean.</p> <p>Erregistroa bikain egokitzen zaio komunikazio-egoerari.</p>
7. Txosten idatziaren aurkezpen zuzena.	<p>Aurkezpen eskasa.</p> <p>Eduki antolatu gabea, tituluak eta baliabide tipografikoak erabiltzean akatsak eginez.</p> <p>Aurkibiderik ez dago txostenaren barne-egitura gidatzeko edo, dagoenean, ez da egokitzen txostenaren barne-egiturarekin.</p>	<p>Aurkezpen onargarria.</p> <p>Edukia aski antolatuta du, tituluak eta baliabide tipografikoak erabiltzean akatsen bat eginez.</p> <p>Badago aurkibidea, txostenaren barne-egitura gidatzeko, nahiz eta batzuetan txostenaren barne-egiturarekin bat ez etorri.</p>	<p>Aurkezpen ona.</p> <p>Eduki aski antolatuta, txostena egituratzeko tituluak eta baliabide tipografikoak erabiliz.</p> <p>Aurkibidearen atal gehienak garatzen dira eta txostenaren barne-egiturari egokitzen zaizkio.</p>	<p>Aurkezpen bikaina.</p> <p>Edukia ongi antolatuta, txostena egituratzeko titulu eta baliabide tipografikoak erabiliz.</p> <p>Agertzen den aurkibideari eusten zaio txostenaren barne-egituran zehar.</p>

AHOZKO AURKEZPENAREN ERRUBRIKAREN PONDERAZIOA. NOTAREN %25				
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	Hobetu behar (0-4.99)	Onargarria (5-6.99)	Lan ona (7-8.99)	Lan bikaina (9-10)
1. Sintesi gaitasuna eta lan modularren ideien garbitasuna eta koherentzia. Aurkezpenerako artefaktuak. (3 puntu)	Lana sintetizatu gabe eta ideiak koherentziarik gabe eta argitasunik gabe eman dira. Artefaktu lagungarriek ez dute batere lagundu sintesian nahiz ordenean.	Modu onargarrian sintetizatu eta ideiak ordenatuta azaldu ditu. Zehaztasun hori ahozkoan nahiz artefaktuetan gertatu da. Horrela, mezua modu onargarrian ulertu da.	Sintesia eta ideien argitasuna eta ordena ona izan da. Erabili diren artefaktuen antolaketak argitasuna eta koherentzia eman dizkio aurkezpenari. Hitz batean, argitasun honek lana ondu du.	Gaia modu bikainean sintetizatu da eta ideia nagusiak modu oso argian azaldu dira. Lan hori aurkezteko erabilitako artefaktuak modu bikainean prestatuak zeuden.
2. Auto-kontrola. Konbikzioa. Seguritatea. Erregistroa. Sarrera. Bukaera. Intonazioa. (2 puntu)	Subjektua modu beldurtuan eta batere seguritatearik gabe aritu da eta mezuaren erregistroa nahiz antolaketa prestatu gabe.	Modu onargarrian kontrolatu du mezulariak bere burua nahiz mezuaren erregistroa eta antolaketa. Intonazioa ere modu onargarrian kudeatu du.	Subjektuak mezuan nahiz erregistroan konbikzio ona azaldu du; mezuaren sarrera, irteera, nahiz gorpuztea ondo taxutu ditu eta hori gauzatzeko intonazio ona egokitu du.	Subjektuak auto-kontrola, mezua, nahiz diskurtsoak eskatzen duen erregistroa eta intonazioa modu bikainean kudeatu ditu.
3. Gorputza. Posturak. Keinuak. Aurpegia, Distantzia.(1.5 puntu)	Ahotsaz gairik komunikatzeko erabil daitezkeen elementuen ezjakintasuna erakutsi du.	Modu onargarrian jakin izan du gorputza eta distantziak kudeatzen, honekin batera, postura, keinuak eta aurpegia era onargarrian kudeatu ditu.	Gorputza, distantziak, postura, keinuak, eta aurpegia ondo erabili ditu, aurkezpenari edota lanari sendotasuna emanaz.	Gorputza eta elementu paralinguistikoak modu bikainean kudeatu ditu lanari bikaintasuna emanaz.
4. Ahotsa. Bolumena. Tonua. Erritmoa. Isiluneak. (1.5 puntu)	Diskurtso plano bat egin du. Lineala. Ahotsaren baliabideak ez ditu ezagutzen.	Ahotsaren erabilera ezagutzen du eta linealtasuna modu onargarrian apurtu du.	Ahotsa, bolumena, tinbreak, erritmoak, nahiz isiltasunak ondo kudeatu ditu, hitzari sendotasuna emanaz.	Modu bikainean kudeatu du erritmoa, hitza eta isiltasuna. Halaber, ahotsaren baliabideak bikain erabili ditu mezua bikain kudeatuz.
5. Publikoarekin komunikazioa. Begiradak. Publikoa aintzat hartzea. (2 puntu)	Ez dio inori hitz egin. Buruz aritu da edota paretari begira. Beretzat izan da aurkezpena.	Modu onargarrian saiatu da entzuleei begiratzen eta komunikatzen.	Erakutsi du barridoak egiten ondo dakiela eta jendea begiratu behar dela. Hau da, mezuan bi alde daudela ondo azpimarratu du, hizlaria eta publikoa.	Jendearekin bikain komunikatzen du. Esaten duenaz aparte entzulearen begiradak eta keinuak jasoak eta horiei itsumustuan erantzuten jakinaz.

13. OHIKO GALDERAK

13.1. Moduluko lana taldekoa bada: zer gertatzen da irakasgairen bat baliozkotuta badugu?

Lanaren planteamendu orokorrari erantzun behar diozue nahitaez, irakasgai horren gaineko ezagutzak eskuratu dituzuela suposatzen da eta (irakasgaia baliozkotuta izanda). Taldeko lanen kasuan adostu zen, 4 pertsonako taldeak direnez, irakasgaia baliozkotuta dutenek moduluko beste irakasgai batzuekin lotutako atazen gaineko ardura izatea (ikasleen taldeak kudeatu behar du bere funtzionamendua lanaren orokortasunari erantzuteko).

13.2. Zer gertatzen da matrikulatutako irakasgai batean etengabeko ebaluazioari uko egiten badiot?

Kasu honetan azken ebaluazioa egiten duten ikasleentzat aurreikusitako planteamendua jarraitzea ekarriko luke

13.3. Zalantza gehiago argitzeko, Moduluetakoa Akordioen Gida irakurri behar da ondoko helbidean:

<https://www.ehu.es/documents/5299588/5638011/MODULUETAKO+AKORDIOEN+GIDA+%282020ko+uztailaren+17an+onartua%29.pdf/65566fb3-a250-0520-84ae-97b03c916a02?t=1598958773380>

14. LANAREN ALDERDI FORMALAK

Aurkeztutako lan guztiek aurkezpenari lotutako alderdi formal hauek bete behar dituzte:

- Letra mota: Times New Roman
- Neurria: testu nagusia 12 puntu; taulak 10 puntu
- Lerro-arte: 1,5
- Paragrafoen antolaketa: justifikatuta (eskuinean eta ezkerrean lerrokatuta) eta 1,25eko koskarekin paragrafoaren hasieran
- Lanaren luzera: gehienez 20 orrialde, azal-orria, eranskinak eta bibliografia kanpoan utzita
- Orriak zenbatuta (azal-orria kenduta)
- Bi aldetatik inprimatuta DIN A4an. Laburpen-taulak DIN A3an inprimatuta.
- Azalez tatu eta grapatu gabe, plastikozko zorro baten barruan.
- Formatua: pdf
- Aipamen bibliografikoak: APA arauen 7. edizioari jarraitu behar zaio.

15. AMAIERAKO LANAREN EGITURA

Proiektuari buruzko txostena idazteko honako egitura hau proposatzen da.

SARRERA

Lanaren kokapena graduan, ezaugarri orokorrak, txosten idatzian jasotakoaren laburpena.

1. PROIEKTUAREN ESPARRUA

1.1. Testuingurua

“Kontzeptuen esparrua K5 moduluko lanerako” dokumentua oinarri hartuta, ikasleen ingurua zehaztu behar da -ikastetxea, ikasgela, ikasleak-.

1.2. Oinarri zientifikoa eta metodologikoa

- Ikasturteko eta zikloko programazioak: erreferentzia orokorra
- Proiektuen bidezko metodologiaren oinarri diren iraka-ikaskuntza printzipioak

1.3. Gaiaren justifikazioa

- Lotura haurren jakin-min, interes, behar, kezka eta abarrekin.
- Lotura Haur Hezkuntzako Curriculumarekin

2. PROIEKTUAREN FASEAK

2.1. Jardueren antolaketa orokorra

- Jarduera-kopurua
- Jardueren arteko lotura eta sekuentzia
- Denboraren banaketa

2.2. Zer dakigu?

Aurretiko ezagutzak detektatzeko jardueren deskribapena

2.3. Zer gehiago jakin nahi dugu?

Hurrek jakin nahi dutena zehazteko jardueren deskribapena

2.4. Nola jakin dezakegu?

Irakas-ikaskuntzarako jarduerak: gaiari zein haurren adinari egokituak, eta eremu eta hizkuntza bakoitzeko proposatu diren gaitasunak eta edukiak garatzeko lagungarriak izan behar dira.

Jardueren deskribapena: proposatzen diren jarduera bakoitzaren garapena deskribatu behar da, erabiliko diren prozedura metodologikoak edo esku-hartze erak barne hartuz.

2.5. Zer ikasi dugu?

Ikasitakoa erregistratzeko eta balioesteko jardueren deskribapena.

3. JARDUEREN LABURPEN-TAULAK

Jardueren ezaugarri didaktiko nagusiak: jarduera motak, jarduera-segida, jarduerak pausuz pausu, elkarrekintza mota eta rolak, esperientzia eremuetako gaitasunak eta edukiak, materialak, gunea, denbora.

4. ONDORIOAK

- Proiektuen bidezko metodologiari buruzko hausnarketa
- Egindako lanari buruzko balorazioa
- Lanaren baliagarritasun profesionala

5. BIBLIOGRAFIA ETA INTERNETGRAFIA

6. ERANSKINAK

16. MODULUAREN AMAIERAKO LANA EMATEA

Emateko eguna: maiatzaren 6an (ostirala).

Bertsio digitala ematea: Txostenaren idatzizko kopia posta-elektronikoz irakasle-tutoreari bidaltzeaz gain, eGelan eskuragarri izango den estekara igo beharko da.

17. MODULURAKO BIBLIOGRAFIA PROPOSAMENA

- AAVV. (2001). *Investigando en la escuela: Los proyectos de trabajo. Aula Infantil*, 1.
- Algàs, P. (koord.) (2010). *Los proyectos de trabajo en el aula: reflexiones y experiencias prácticas*. Graó.
- Antzuolako Herri Ikastetxea. (2000). Ikaslearen osotasunari erantzuteko proposamen bat: proiektuak. *Hik Hasi, Udako Topaketa Pedagogikoak*, 8-13.
- Arias Correa, A., Arias Correa, D., Navaza Blanco, M. V. eta Rial Fernández, M. D. (2009). *O traballo por proxectos*. Xunta de Galicia. Eskuragarri hemen: https://www.edu.xunta.es/ftpserver/portal/DXC/9002463-Proxectos_Web.pdf [Kontsulta eguna: 2020/09/04].
- Arregi, X. (2009). Zertaz ari gara proiektuen bidezko metodologia aipatzen dugunean? Zein dira metodologia horren ezaugarriak? Eta abantailak? *Hik hasi*, 130, 30-32.
- Díez Navarro, C. (1998). *La oreja verde de la escuela* (2. ed.). Ediciones de la Torre.
- Domínguez Chillón, G. (2013). *Proyectos de trabajo. Una escuela diferente* (3. ed.). La Muralla.
- Elizburu, R. eta Etxeberria Uribesalgo, A. (1999). Las jirafas. Un proyecto de trabajo. *Infancia*, 58, 28-29.
- González Alfaya, M. E., Mérida Serrano, R. eta Olivares García, M. A. (koord) (2016). *Los proyectos de trabajo: Tejiendo sueños, construyendo vida en la escuela infantil*. Pirámide.
- Hernández, F. eta Ventura, M. (2010). *Curriculuma lan proiektuen bidez nola antolatu*. EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- La Cueva, A. (1998). La enseñanza por proyectos: ¿mito o reto? *Revista Iberoamericana de Educación*, 16, 165-190, eskuragarri hemen: <https://rieoei.org/historico/oeivirt/rie16a09.pdf> [Kontsulta eguna: 04/09/2020].
- López de Sosoaga López de Robles, A., Ugalde Gorostiza, A. I., Rodríguez Miñambres, P. eta Rico Martínez, A. (2015). La enseñanza por proyectos: una metodología necesaria para los futuros docentes. *Opción*, 31(1), 395-413, eskuragarri hemen: <http://www.redalyc.org/articulo.oa?id=31043005022> [Kontsulta eguna: 04/09/2020].
- Luna, F. (2008). El alumnado decide qué se va a trabajar. El trabajo por proyectos en el CEP Arrankudiaga LHI. *Cuadernos de Pedagogía*, 384, 20-25.
- Majó Masferrer, F. (2010). Por los proyectos interdisciplinares competenciales. *Aula de Infantil*, 57, 5-10.
- Majó Masferrer, F. eta Baqueró Alòz, M. (2014). *8 ideas clave. Los proyectos interdisciplinarios*. Graó.
- Martín, M. J., Gimeno, P. eta Algàs, P. (2003). Los proyectos de trabajo. El espacio exterior. *Aula de Infantil*, 14, 14-18.

- Notivol Gracia, M. (1988). Trabajar por proyectos. *Cuadernos de Pedagogía*, 267, 23-26.
- Salas, C. eta Ribalta, R. M. (1997). Projecte de treball al parvulari: El bosc. *Guix*, 238, 65-71.
- Sanmartí, N. (2016). Trabajo por proyectos: ¿filosofía o metodología? *Cuadernos de Pedagogía*, 472, 44-46.
- Sanmartí, N. eta Tarín, R. (2008). Proyectos y actividades para cambiar el entorno. *Aula de Infantil*, 44, 5-7.
- Sanmartí, N. y Márquez, C. (2017). Aprendizaje de las ciencias basado en proyectos: del contexto a la acción. *Ápice. Revista de Educación Científica*, 1(1), 3-16. DOI: <https://doi.org/10.17979/arec.2017.1.1.2020>